

Beñat Arregi (1973-2004)

Ehun mila isiltasun

Heztea, enpatiaren mundu zabal eta anbiguoan barrena ibiltzeko gonbitea da. Aukera ematen digu hazierako aldi ezberdinetan haiei begiratu eta gure buruari begiratzeko, haiekiko antzekotasunez ohartzeko. Heziketaren dialektika horretan haurra errealitateari egokitze kinka horretan bere osaketa intelektual eta emozionalean parte hartzera sartzen gara. Azken finean, guztiok gaude izatearen eta bilakaeraren arteko sintesi horretara kondenaturik.

Beñat Arregik ere, beste haur askok bezala, ikusizkoaren nire hezitzaile gidaritzapean ibili zituen oso txikitatik norbanako orok bizi dituen tupusteko eraldaketen errenkadak berarekin dakartzan gorabeherak. Hain zuzen ere lehen urte horietan azaltzen ditu genotipiak gardenen, gehienetan gerora bizitza osoan gurekin izango ditugun zer izanak.

Isila gogoratzen dut, inork antzematen ez zuen egonean, oin puntetan ibiliko balitz bezala entzuna ez izateko; itzalean baina erne. Denborak aurrera egin ahala jabetu nintzen herabetasun arin horren atzetik, egiten ari zenaren gaineko uste oso eta irmoa ezkutatzen zuela. Horrela, bere lanak asmoz beterik zeuden, gauzak kontatzeko irrika xalo batetik eraikiak, azken batean bizipen berrietara jotzearen bere itxura herabea hankaz gora uzten zuen bizitzeko dinamika batetik, zeinak kalitate iradokitzailea erdizka agertzen baitzuen. Bere sekretua zen.

Pentsamendu abstraktura esnatzeak, apurka-apurka, bere nahiak ernatu zituen gogoan, eta haiek Arte Ederren Fakultatera eraman zuten, ondoren ikus-entzunezkoetara jotzeko, non kontzeptuak eta plastikotasunak bat egiten duten ikusteko eta izateko aukera emango duen gunea aurkitzeko beharrek. Edorta Langarak, adiskide eta urte horietako ibileretan lagunak, azaltzen zuen Berlinen izan zuen eskarmentuak aldaketak eginarazi zizkiola ondoren sortu zuen obra moldatu zuten kontzeptu eta joeretan. Hilabete haietan barrena, gerora pixkanaka ibilbide itxuraz ezberdinetan isuriko zituen bizipenez elikatu zen, proiektuak, ekintzak eta instalazioak sortuz, guztiak laurogeita hamarrek hamarkadako ekitaldi artistiko garaikide haiek eragindakoak.

Beñatentzat argazkia, zalantza izpirik gabe, bere funtsezko lanabesa izan zen, bere ideia eta asmoen egitura ehotzeko baliatzen zuen lotura. Baina bere obrak argazkiak al dira? Argazkia zein askatasunez eta baliabideez erabiltzen duen ikusteak nabarmen azaltzen du ez zela mugatzen teknikaren parametroetara. Areago zihoan. Pentsatzeko molde horretan bere obretan, bere bilaketetan arrastoa utzi zuten erreferenteak izan zituen, hain zuzen ere horiek bere bizitza betetzen zuen konplexutasun bat, agian erronka bat adierazten baitute. Hala erakusten dute Cindy Shermanen transformismoen aldeko joera, Man Rayren obra jostalari eta liluragarriak eta Moholy Nagyren izaera berritzaileak. Horietan guztietan bada hari gidari bat, zeinak argazkia protagonistatzat hartzen duen baina, finean, sortzaile horiek ezaugarri duten izaera urratzailea da bertako kinoa, eta horrek elikatzen du Beñat eta, aldi berean, erakartzen. Halabeharrek marrazten duen labirintoak sekretu bat gordetzen zuen haur isil haren irudia itzultzen digu berriz, arrazoi ezaz, amaitu gabeko pentsamendu baten elipsiaz hitz egiten diguten obra hauetan islaturik.

Zoritarreko goiz batean, logikarik gabeko hutsegite zital batek eraikitzen ari zen nahi bat birrindu zuen. Garenaren sentimenduan zehar ibiltzeko darabilgun hari hauskorra, hautsi egin zen; beregan bizitza, guregan bere izatearen orbana. Egun hark ehun mila taupadako isiltasuna utzi zigun eta misterio bat, oihartzun egiten duena ezinezko erantzun batean.

Eduardo Arrereygor